



DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO LAN MEDIKUNTZAKO MEDIKU ESPEZIALISTAREN 1 PLAZA.

IZENDAPEN-PROPOSAMENA.

Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko lan-medikuntzako mediku espezialistaren 1 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren 8 oinarrian xedatutakoa betez –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen 2025eko irailaren 29an, eta 2025eko 202. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 9koan, argitaratu zen–, oposizioko kalifikazio-epaimahaiak aurkeztu du proba gainditu duten eta deialdian eskaturiko betekizunak betetzen dituzten izangaien aldeko izendapen-proposamena, deialdian eskaini zen plaza kopuruaren arabera:

Txanda irekia

MONTES MUEZ, SILVIA

Epaimahaiaren proposamena ikusirik eta deialdiaren 8.1 oinarrian ezarritakoarekin bat,

ERABAKITZEN DA:

proposatutako izangaiari eskatzea oinarri horretan eskatzen den dokumentazioa aurkez dezala Iruñeko Udalaren Erregistro Orokorren bidez, proposamen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.